

EMAKUME ESANGURATSUEN INGURUKO IKERKETA EGITEN DUGU

KATHERINE JOHNSON

6D1 taldeak, bozkaketa bidez Katherine Johnson-i buruzko ikerketa egitea erabaki genuen.

Gure helburua, solasaldi dialogikoaren bitartez, alde batetik Katherine Johnsonen ibilbidea eta bizitza ezagutzea izan da eta bestetik, zientziaren arloan emakumeek izan duten garrantzia aztertzea; emakume hauek duten errekonozimendu ezaren inguruan hausnarketa egiteko.

Hiru saio erabili ditugu jarduera aurrera eramateko.

1.SAIOA

Katherine Johnsonen biografia irakurri dugu klasean, tutoreak sortutako testu hau izan da erabilitakoa:

<https://drive.google.com/file/d/1D95iN3VKQdyinP8lsZnT8nndBYJ4f6DI/view?usp=sharing>

Ikasle bakoitzak, solasaldi dialogikoak egiteko erabiltzen dugun koadernoan, arreta deitu dion esaldi bat apuntatuko du, eta Katherine Johnson-i esatea gustatuko litzaiokena ere, idatziko du.

2. eta 3. SAIOAK

Solasaldi dialogikoa

Bigarren eta hirugarren saioetan, talde handian solasaldi dialogikoari ekingo diogu. Haiekin hausnartzea eta sentitutakoa partekatzea izango da helburua.

Bukatzeko, Katherin Johnsonen argazkiekin egindako hormairudian, ikasle bakoitzak berari esatea gustatuko litzaiokena idatziko du.

AZKEN PRODUKTUAREN ARGAZKIAK





